

---


## Premia/eskola 2.0 sareaz oinarritzko ikastaroa.

### 2.- Komunikazioak.

#### AURKIBIDEA

<b>2.</b>	<b>KOMUNIKAZIOAK</b> .....	<b>1</b>
2.1.	Router-a (Teldat).....	1
2.2.	Fortinet.....	2
2.3.	Banda Zabalera .....	2

## 2. KOMUNIKAZIOAK



Zentroetako **INTERNET** konexioa **WAN**-aren bitartez **EJIE** eta **LAKUA**-n dauden irteera tronkaletara bideratzen da eta handik **INTERNET**-era ateratzen da.

Zentro bakoitzak bi gailu izango ditu komunikazio armairu edo rack-ean: Router (bideratzailea) eta Fortinet. Rack-etako tresnen bat berrabiatu izanez gero **mantentze-zerbitzuarekin** harremanetan jarri.

### 2.1. ROUTER-A (TEL DAT)

**ROUTER-AREN DEFINIZIOA: Router-a edo bideratzailea.** Zentroko saretik kanpora konektibitatea ematen duen gailua da, bai Internetara edo bai zerbitzari zentraletan partekatuta dauden baliabideetara. Bere funtzio nagusia, sare lokal batetik bestera datuak **bidali** edo **bideratzea** da.



---

## 2.2. FORTINET

**FORTINET-AREN DEFINIZIOA:** Gure sarera nor sartzen den kudeatzen du eta baita ze baimenekin sartzen den ere. Gailu honen bi funtzio garrantzitsuenak hauek dira:

- A) **Firewall-a edo suebakia.** Segurtasuna emateaz eta gure sarearen sarrera baimentzeaz arduratzen da. Edukien iragazki bat dakar, web orrialdeen sailkapena kontutan hartuta edukia blokeatzen duena.
- B) **DHCP Zerbitzaria.** Sare kableatura edo wifi sarera konektaturik dauden irakasle eta ikasleen ekipoen zako IP helbideen esleipen automatikoa

Zuen zentroko komunikaziotako armairuan (rack-an) argazkian ikusten den bezalako Fortinet bat egongo da:



Edukiak **blokeatzeko/desblokeatzeko** eskaerak **CAU(Mantentze-Zerbitzua)-LAKUA**-ren bitartez **EJIE**-raino bideratzen dira.

---

## 2.3. BANDA ZABALERA

**Bandaren zabalera:** Zentroak kanpotik (internet, intranet) edukiak igo ala jaisteko izango duen transferentzi tasa maximoa da.

Komunikazio kontratu berriarekin zentroek izango duten bandaren zabalera 100 Mbps-ekoa izango da.